

IKASTOLAKO PASADIZOAK

Doinua: Antton eta Maria edo Batetikan korrozka

klasetatik klasera
pasatzen egunak
kontrolak azterketak
dira ezagunak
arbelan ariketak
ma(h)iean gutunak
ikasleen artean
pikea dugunak
ostirala iristean
eskutik lagunak

Atsedena pasata
berriro gelara
txirrinak jo orduko
nolako algara
bazkari goxoa jan
ondoren Sarara
txangorik hoberenak
ona eta hara
asteburuetan bai
dibertitzen gara

Ikastolan bost egun
pasatzen ditugu
asteburuan berriz
gehiago nahi dugu
niri iruditzen zait
gaudela gatibu
ta jartzen dizkigute
hainbeste kastigu
desesperaturikan
ibiltzen gara gu

Leihotik begiraka
lagunak ikusten
baloiakin futbolan
ai die jolasten
ni berriz gelan nago
gizarte ikasten
atsedentxo bat hartu
tarteka abesten
ikasi ta ikasi
ari naiz aspertzen

Azterketak ordu bat
irauten digute
eta aulkietan bai
gaude gu aparte
elkarri txibatzea
izan leike kalte
gaizki eginez gero
jartzen digu kate
azterketa zailena
izaten da mate

Bertsoak bukatzeko
zailtasunak pila
hemen ari naiz orain
inspirazio bila
saiatu ta alferrik
ez naiz ba habila
kokoteraino daukat
alboko mutila
lo hartu baino leno
esnatu dadila